



3 OSASUNA

Dinbi Banda batukada irabazle Gaztea Parodyn

Lasarte-Oriako Dinbi Banda batukada Gaztea irriatiak antolatutako Parody lehiaketan parte hartu du. Bruno Mars-en "The Lazy song" parodiatu zuen herriko batukadak eta entzuleen saria lortu du, 2.000 euro. Dirua instrumentu berriak erosteko erabiliko du taldeak. Era berean, bideoa bozkatu dutenei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

4-5 BURUNTZALDEA

Euskarazko produktuak oparitu

Gabonak gertu dira eta oparitan pentsatzen hasi behar da. Euskarazko produktuak oparitzekoasmoa badauztu laster Euskarazko katalogoa laster izango duzue etxean. Honetan merkatuan dauden produktu berrienak eta egokienak, 16 urte bitarteko haur eta gazte txontzat. Musika, liburuak, jolas eta jokoak... denetarik aurki daiteke. Era berean, teknologia berriak nahiago dituenak 'www.katalogoa.org' helbidean produktu guztien berri izan dezake eta hau urte osoan zehar dago martxan.



Taxio Arrizabalaga zinegotziak eta Haritz Iparragirre komunikazio arduradunak aurkeztu zuten udalaren irudi korporatibo berria hautatzeko lehiaketa. Urtarrilaren 3a izango da lanak jasotzeko azken eguna eta irabazleak 3.000 euro eskuratuko ditu. Edozeinek har dezake parte lehiaketan eta irabazlea aukeratzeko kontutan hartuko da herriko elkarten iritzia, herritarrena eta udala osatzen duten alderdiena.

Udalaren irudi korporatibo berria hautatzeko lehiaketa aurkeztu zuten Taxio Arrizabalaga zinegotziak eta Haritz Iparragirre udaleko komunikazio arduradunak. Aurreko udalbatzarrean onartu zen lehiaketa hau burutzea eta oraingoan oinarriak aurkeztu zituzten "beharrezkoa iruditzen zaigune udalaren irudia modernizatu eta garai berrietara moldatzea".

Taxio Arrizabalaga zinegotziak azaldu moduan, lau dira udalarentzat irudi berri honek bere baitan izan behar dituen baloreak, "batetik Lasarte-Oria udalerrri gaztea dela, 1986an sortutakoa eta bere independentzia lortzeko borrokatu behar izan zuena, Lasarte eta Oria hiriguneen elkarteak, historikoki bi hirigune izan eta egun bat dena, langile herri izaera eta azkenik, kultura-aniztasuna.



Haritz Iparragirre Udaleko komunikazio arduraduna eta Taxio Arrizabalaga zinegotziak aurkeztu zuten irudi korporatiboaren lehiaketa.

Industrializazioarekin batera jaso zituen lehenengo etorkinak Lasarte-Oriak eta gaur egun ere etorkin asko jasotzen du. Beraz, kultura-aberastasun handia duen herria izaki alderdi hau ere islatzea nahi dugu".

Hilabete lanak jasotzeko

Hilabete dago lanak aurkezteko "datorren astelehenean Boletinean argitaratuko litzateke lehiaketa eta astelehenean hasita hilabete epea zabalduko genuke lanak jasotzeko, beraz urtarrilaren 3a izan daiteke hauek jasotzeko azken eguna".

Aurkezteko moduari dagokionez, lan guztiak izenorde batekin aurkeztuko dira, "lehiakideen anonimotasuna bermatzeko". Izenordea dokumentu guztitan agertu beharko du. Lanak gutun-azal edo estalki itxi batean aurkeztuko dira, haren kanpoaldean

Lasarte-Oriako udalaren logotipo edo Irudi korporatiborik lehiaketa eta izenordea azalduz. Gutun-azal horren barruan beste gutun-azal itxi bat sartuko da datu pertsonalak eta telefonoarekin.

Irudi berria formatu inprimatua zein digitalean aurkeztu beharko da. Formatu inprimatua, logotipoak eta honen aldaera guztiak, fondo zuriko euskarri zurrunean muntatuak egon beharko dute (luma-kartoa, forma...), behar bezala babestuta, DINA4 tamainan. Formatu digitalari dagokionez, logotipoa koloretan, grisen eskalan edo zuri beltzean eta aldaera moldagarrian.

Irudia hautatzeko herritarren parte hartzea sustatu nahi du udalak eta horretarako hainbat bide zabalduko dira, "lanekin erakusketa bat egingo da eta bertan herritarrek gustukoena zein duten

bozkatuko dute, horretaz gain San Pedroan egin bezala, Interneten aukera izango da ere bozka emateko".

Hiru epaimahai

Hiru epaimahai sortuko ditu udalak, "nolabait herritarren iritzia izango da bat, herriko elkartei ere euren hautaketa egitea eskatuko zaie eta hirugarren multzoa udala osatzen duten alderdi guztien ordezkariak osatuko dute. Dener artean irabazlea zein den aukeratu da".

Udalaren web orrian daude oinarriak "irudia aurkezteaz gain, irabazleak estilo liburu egiteko beste hilabete bat izango du ondoren". Saria 3.000 eurokoa izango da. Taxio Arrizabalagak azpimarratu zuen "irudi berriaren erabilpena pixkanakakoa izango da, eta stockean dagoen materiala bukatu ahala erabiltzen hasiko da".

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

ANTOLATZAILEA
Durangoko Udala
gerediaga

KULTURA GONBIDATUA
Kale dor kalyiko

BABESLE NAGUSIA
BFA DFB
Batasun Foru Aldekoa
Deputazio Foru de Bizkaia

BABESLE PUBLIKOAK
Durango Udala - Diputazio Foru de Bizkaia

DURANGOKO
Udala - Diputazio Foru de Bizkaia

Deputazio Foru Aldekoa
Deputazio Foru de Bizkaia

BABESLE PRIVATUAK
bbk

EROSKI
zura.in

KOMUNIKABIDEA
TOKIKOM

Neure kabuz



Axier Odriozola
Katalunia

Miloi terdi lagun bai Bartzelonako kaleetan. Irailak hamaika zituen, Diada-eguna katalanentzat. Urtero ospatu izan dute baina ez aurtengo sona, arrakasta eta jarraipenarekin. Milioi terdi lagun kaleetan ez da nolahi biltzen eta asko pentsa arazten du argi denez.

Madrilen kezka sortu zuen baten baino gehiagoren barrualdean. Orduartean Kataluña, aldarrikapen batzuk gorabehera, oso modu errezean eramateko auzia zen estatuarentzat. Aurten ordea alarma guztiak marruka hasi zaizkie independentzia eskean halako jende oldea ikusita.

Hori Madrilen, esan bezala.

Eta Katalunian bertan ere askoren burmuinak marxan jarri ziren. ERCKoek pentsatuko zuten hura zela beraien ideietara bildutako andanaren gozame-na. Denak independentista ikusiko zituen estelada-banderak tarteko.

Eta batzuk hala izango ziren baina beste asko nazka nazka egindako herritarrak besterik gabe. Handik dirua erruz joaten dela Madriler eta bueltan askoz ere gutxiago itzultzen dela somatzen duena.

Eta banderak aipatu ditudanez, hain juxtu, Artur Mas presidentek manifestari guztien bandera hartu nahian auto-determinaziorako ziaboga jo zuen, nahiz martxa hartan azaldu ez, haien buru buruan jarri nahirik edo.

Eta 62 parlamentarekin gobernuan zegoen CiUk erabaki kurioso bat hartu zuen: hauteskundeak deitzea legegintzaldiak bi urte ere egin ez zituenean oraindik. Milioi terdiko erakustaldi hartan arrantzan egin eta sare-pelajikoak bota nahi izan zituen Mas presidentek bi usterekin: jendeak erabakitzeo eskubidearen alde egingo zuela, eta bera hautatuko zute-la horretarako gidari.

Lehenengo ustean bete bete anasmatu zuen Arturrek, bigarrenean ez hainbeste: 12 parlamentari galdu ditu CiUk ezustean, eta beti independentziaren alde egin duen ERC saritu dute.

Aspaldiko esaera gaurkotu zaio "molt honorable" katalanari: usteak erdia ustel.

Zorion agurrak



Itziar

Zorionak "tzir"! Elkarrekin ospatzeko modurik ezin hobea asteburuko planing-a!



Garazi

Zorionak sorgintxo!! Txokolatzeko 3 muxu potolo familia osoaren partez!!



Ander

Zorionak familiaren partetik! Ondo pasa zure egunean.



Miren

Zorionak zure bosgarren urtebetzean eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Rakel

Zorionak printzesa! Zortzi muxu potolo amatxo, aitaxo eta familiaren partetik.



Pilar eta Patxi

Zorionak 61 urte elkarrekin. Besarkada handi bat seme-alaben, biloben, eta maite zaituzten lagunen partetik. Egun ona pasa dezazuela!



Aimar

Zorionak sei muxu handi familia guztieren partetik.



Libe

Zorionak Mari Sorgina!!! Txoko-marrubizko 5 muxu potolo Enara, aita eta amaren partetik.



Xuhar

Zorionak gure etxeko erregearentzat! Muxu pila aitaxo eta amatxoren partetik!!!



Ariadna

Zorionak!!! Bederatzi muxu Telma, amatxo eta aitaxoren partetik. Ondo pasa!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- Logela alokatzen da erdialdean, brigidatarren parean. Bakarrik bizi den 32 urteko gaztea naiz eta etxea elkarbanatu nahiko nuke. Gela ohe handi batez eta armairuz hornitua dago. Hilean 300 euro gastuak barne. Deitu 682322457
- Pisukide bila nabil. Etxe polita eta zentroan kokatuta, gela handia da eta argitsua. Aukeran 35 urtetik gorako pisukidea nahi nuke. Hilabetean 300 euro inguru. Pilar 647 884 278
- Teilatupeko pisu berritua alokairuan. Tolosako erdigunean. Interesa daukazuena: 626057485(Yone)
- Pisua alokatzen da Lasarte-Orian. 9. pisua,

hegoaldera begira, eguzkitsua. 3 logela, sukaldia, komuna eta 2 balkoi. 649 424 826, Josune.

Lan-eskaintzak

- Esperientziadun sukaldaria behar da Lasarteko taberna/jatetxe batean lan egiteko. Interesa duzuenok bidali CV-a lehen bait lehen garakari@hotmail.com helbidera.

Lan-eskariak

- Emakumea eritexean gauak pasa, nagusiak-haurrak zaindu edota garbiketa lanetan aritze-ko prest, orduka, goiz edo arratsalde. Erreferentzia onak. 619 803199
- Neska arduratsua pertsona adindua zaindu edo garbiketa lanak egingo lituzke interna moduan edo orduka. Erreferentziak ditu. Harremanetarako, 669 931 026.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Miren Iñigo Garcia, azaroaren 23an.
- Anartz Iriarte Cincunegi, azaroaren 19an.



Heriotzak

- Jesus Mari Mugica Zubia, azaroaren 28an, 60 urte zituela.
- Dionisio Vegas Zazuolo, azaroaren 24an, 57 urte zituela.
- Daniel Fernandez Hoyos, azaroaren 23an, 40 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 30 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 1 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 2 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 3 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 4 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 5 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 6 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Ostirala, 5 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 8 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chucha, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

MUSIKA

Dinbi Bandaren "The lazy song" irabazlea

Gaztea Parody lehiaketan entzuleen saria eskuratu du batukadak

Herriko Dinbi Banda batukadak Gaztea irratia antolatutako Gaztea Parody lehiaketa irabazi du "The Lazy Song" abestiaren bideokliparekin. Finalean 2.003 boto lortuta 2.000 euro eskuratu ditu taldeak.

MAIDER AZURMENDI



Bideokliparen irudian Dinbi Bandako sei kide Gazteko kazetarien karetekin.

Herriko batukadak Gazteak martxan jarritako bideoklip lehiaketan parte hartu du Bruno Mars-en "The Lazy Song" abestiaren parodiarekin. Bi izan ziren hasiera batean herriko taldeak aurkeztutako bideoak baina batek ez zuen lehen filtroa gainditu.

Isa Fernandez de Agirre batukadako kideak azaldu moduan, bideoak bi arratsaldetan grabatu zituzten eta oso pozik geratu ziren emaitzekin.

Lehenengo postuetan

Lehiaketa bi fasetan burutu da azken asteetan. Lehenik aurkeztutako 20 bideoen aukeraketa egin zuen epaimahaia eta

entzuleek hauek bozkatu behar izan zituzten. Ondoren, bost finalistak izendatu ziren eta berriz ere, bozkatzeko tartea zabaldu zen. Hasieratik izan da lehen bost bideoen artean Lasarte-Oriako batukadarena.

Asteartean jakitera eman zuten 2.003 botorekin entzuleen saria lortu zuen herriko batukadaren lanak. Honi esker, 2.000 euroko saria eskuratu dute. Hala ere, epaimahaia esanetan, "Leitza Style" parodia izan da hoberena eta lan honengatik 1.000 euro irabazi ditu Leitza ikasle taldeak.

Batukadakoek aipatu moduan, diru hau instrumentu berriak erosteko baliatuko dute. Herrian egindako kanpaina "izugarria" izan da "pintxo botoa" ekimena ere egin zuten asteburuan herritarrek bozkatzera animatzeko.

"Herrian kanpaina handia egin da, beste bideo batzuk egin ziren bozka nola eman azaltzeko eta sare sozialetan zabaltzen aritu gara, familia, lagunak denak mugitu dira". Hau dela eta, egun hauetan euren bideoa bozkatu dutenei eskerrak eman nahi izan dizkiete ere.



lazio gaia Olinpiadak izan baziren ere, denetarik ikusi ahal izan zen herriko kaleetan.

PARTE-HARTZEA

Inauterietako gaia aukeratu

Lasarte-Oriako Udalak, 2013. urteko Inauterietako begira, gaia hautatzeko herri galdeketa bat jarri du martxan.

Lasarte-Oriako etxe guztietara helduko da proposamenak biltzeko eskuorria eta eraikin publikoetan ere eskuragarri egongo da. Internet bidez ere, www.lasarteoriasaren.eu webgunean, jasoko dituzte proposamenak.

Ostean, herriko eraikin publiko guztietan kokatuta dauden parte-hartze postontzietan utzi beharko da proposamena, hauek jasotzeko azken eguna abenduaren 16a izango da.

"Proposamenak orokorrak izan beharko dira gai berdinarekin inguruan mozturro eta ideia ezberdinak izatea ahalbiderratu behar dute," adierazi dute parte-hartze saileko arduradunek.

Idaia guztiak Inauterietan antolatetarako berriz ere martxan jarriko den parte-hartze forora eramango dira, eta bertako parte-hartzaileek, konpartsa ezberdinetako ordezkariak, udal-letxe festen saila eta parte-hartu nahiko lukeen herritarrek, erabakia hartuko dute.

SALTOGELA

Kontu Kantoiren ipuinak

Saltogeta psikomotritate gelaren inaugurazioa dela eta, gaur arratsaldeko 17:30etik aurrera Kontu Kanto ipuin kontalariak izango dira Kale Nagusia 27 zenbakiko lokallean.

Bi saio desberdin izango dira, 17:30etik 18:30era, 0 eta 3 urte arteko haurrek gozatu dute Bea eta Cesaren ipuinez eta 18:30etik aurrera, 3 urte baino gehiago duten gaztetxoentzako izango da.

SOLASKIDE

Afaria Arrieskalleta elkarteak

Solaskide ekimenerako lagunek astelehenean, abenduaren 3an, afaria antolatu dute Arrieskalleta elkarteak, 20:00etan. Honetan, ikasturte hasiera eta euskararen eguna ospatuko dute. Mintzalagun guztiak daude ekintzara gonbidatuta.

GAZTE KLUBA

Arratsalde dibertigarria

Abenduaren 3an, Euskararen eguna dela eta, Gazte Klubeko kideek larunbatean abenduaren 1ean, 16:30etatik aurrera arratsalde pasa ederra egiteko aukera dute Iñigo de Loyola kaleko Gazte lokallean.

LH3 eta LH6 maila arteko gaztetxoek Mihiluze programan oinarritutako joko berezian parte hartu ahal izango dute. Animatu!

ELKARTASUNA

PSE-EE-ren jostailu bilketa kanpaina

PSE-EEk krisi garaian egoera larrian diren familien egoera latza arintzeko bere ekarpena egin nahi du urte amaierako hilabeteetan. Gabon egunei begira jostailu bilketa solidario dute martxan. Jasotako jostailuak Caritas erakundearen esku utziko dituzte, jostailuen banaketa gardentasun osoz egin dadin.

Abenduaren 21era bitartean arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara zabalik dago PSE-EEren egoitza jostailuak jasotzeko eta ordutegi hau gaizki datorkionari "Casa del Pueblo"-ko tabernan utzi ditzake jostailuak. Berreraibiltzeko moduan dauden edozein jostailu jasotzen dute eta trukean bizikleta baten zozketan parte hartzeko txartel bat jasoko dute.

Bizikletaren zozketa, hilaren 22ko loteriarekin batera egingo da. Bizikleta jasoko du, loteria sari nagusiaren azken bi zenbakiak dituen txartelaren jabeak. Hilabeteko epea egongo da saria jasotzeko.

Bildu Kontseiluaren ekimenekin bat

Euskararen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, abenduaren 1ean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak "Euskaraz bizi nahi dugu" manifestazioa antolatu du Donostian. Honekin bere atxikipena azaldu du herriko Bildu ohar honen bitartez.

"Lasarte-Oriako Bilduk, euskaldunen euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea errespetatzearan alde egonik, deialdi horrekin bat egiten du. Herritarrei ere deialdiarekin bat egiteko gonbidapena luzatzen dizuegu. Batetik, www.euskarazbizinahidut.org webgunean atxikimendua eman dezakezue. Bestetik, Kontseiluak eginiko proposamenarekin bat eginez zuen etxeko balkoian azaroaren 26tik abenduaren 3ra bitartean ikur hori jantzerantz animatu nahi zaituztegu. Ikurra eskatzeko, lehendik aipatutako webgunean jo dezakezue edota Kontseilura 943591200 deituta."

Urte osoan bezala, egun hauetan ere gehiago, euskaraz bizitzera, euskaraz gozatzera, animatu nahi dituzte herritarrek. "Guztiok batera lortuko dugu, pertsona bakoitzetik, tal-



Kontseiluak deituta manifestazioa egin zen herrian irailaren 22an.

dera, taldetik udalerrira eta udalerriri bakoitzetik Euskal Herri osora zabalduko den iluzioa eta bizi nahiaz aurrera egitea".

Alderdien babesik ez

Era berean, Lasarte-Oriako Bilduko Udaltaldeak azaldu nahi da, idatzi hau, udalaren izenean eginiko bertsioan, hau gure babesa emateko egindakoa da, aurreko astearen udal bozeramaileen batzordera eraman zela bertan landua izateko.

Honetan proposatzen ziren ekimenei babesa eman eta Udalak aurrera eramatea zen helburua. Emaitza ez zen positiboa izan eta bertan bildu ziren alderdiek PSE, EAJ, PP eta LOHP, desadostasuna agertu

zuten Bilduren harridurarako.

Bilduren ustetan kontseiluak egiten duen lana euskararen inguruan mirestekoa da eta "Euskaraz bizi nahi dugu" lelopean egingo den manifestazio "euskararen normalizaziorako beste urrats bat bezala ikusten dugu".

Lasarte-Oria euskararen erabilera bultzatzeko egiten ari den esfortzua, Maratoia azken adibide garbia, ikusirik honelako ekimenei alde txerrik ikusten dionik egoteak ere harridura sortzen dio alderdiari.

"Gure aldetik herritar guztiak euskaraz bizitzearan alde proposatutako ekimenetan parte hartzerako gonbidatzen ditugu," adierazi dute.



EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2012-2013

Ehunka produktu eskura euskaraz irakurri, jolastu eta abesteko

Opariari egiteko garai aproposa dela aprobe-txatuz, Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu berri du Udalak. Bertan bildu dituzte merkatuan dauden produktu berrienak eta egokienak, 16 urte

bitarteko haur eta gaztetxoentzat: musika, liburuak, jolas eta jokoak... Eta nahi duenak produktu guztien berri ere izan dezake 'www.katalogoa.org' helbidean. Urte osoan, gainera!

Xabierrentzat *Azken garaipena* komikia eta Hiru gutun Iruñetik liburua, Mainerrentzat Belagarriren azken diskoa eta *Gaur zortzi* liburua, Perurentzat Pirritx, Porrotx eta Marimotosten puzzle erraldoia eta etxeko guztiontzat *Mihiluze* mahai jokoa. Gaur egun, erraza da gero Gabonetako opariak aukeratzeko! Izan ere, Euskarazko Produktuen Katalogoak ehunka produktu jartzen ditu eskura 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzako, eta baita gurasoentzako ere.

Euskal Herriko 200dik gora udal eta mankomunitatek osatu dute Katalogoa, tartean Buruntzaldeko 6 herriek. Urtero bezala, merkatuan dauden produktuaren artean hautaketa egin dute, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

Katalogoa bi euskarri ezberdinetan zabaltzen da. Alde batetik, paperezko edizioa dago, etxetan eta ikastetxeetan banatu berri dena. Urtean behin argitaratu eta zabaltzen da eta Euskal Herri osoan 140.000 aletik gora banatzen dira; Buruntzaldean 9.000 ale.



Beñat Mendizabal, Markel Mendizabal eta Odile Bourguignon Badakir mahai jokorekin jolasean.

www.katalogoa.org webgunean aukera dago produktuetara edo argitaletxeetara zuzenean joateko loturak ere ematen baititu. Produktuak etxetik eros daitezke

Interneteko edizioa, askoz ere zabalagoa

www.katalogoa.org helbidean, interneteko edizioa dago. Interneteko gune horretan, paperezko katalogo osoa ikus daiteke, eta horrez gain, paperezkoan sartu ez diren produktu gehiago ere azalzen dira. Aukera dago, gaine-

ra, produktuetara edo argitaletxeetara zuzenean joateko loturak ere ematen baititu. Eta nahi izanez gero, begiz jotako produktuak eros daitezke etxetik.

Urte osoan bizirik eta eguneratua dagoen gunea da www.katalogoa.org, argitaletxeek aukera baitute produktu

Katalogoa interesgarria eta baliagarria

1998 urtean argitaratu zen lehenengo aldiz Euskarazko Produktuen Katalogoa. Nafarroako udal gutxi batzuek abiatu zuten ekimena. Aurten 15garren edizioa argitaratu da eta hainbeste urteko elkarlaren emaitzak zehaztasun gehiagorekin ezagutzeko, azterlan bat egin dute Aztiker enpresaren laguntzarekin. Azterlan horretan bildu diren datuen arabera, Katalogoa eraginorra da. Inkestatutako heritarrek orokorrean azaldu dute Katalogoa interesgarria eta baliagarria dela.

KATALOGOA BANATZEAK EDO EZ BANATZEAK IZAN DEZAKE ERAGINIK SALTMENTAN?

Bi herri konparatu dira: Arrasate eta Eibar. Azterketa xume batek eman ditzakeen ondorioak direla ahoz gabe, eskuratu diren datuen arabera, esan daiteke Katalogoaren moduko produktuak herrian zabaltzeak baduela eragirik euskarazko produktuen kontsumoan. Arrasaten %45ek euskarazko produktuak erosten ditu; Eibarren %28k.

Katalogoa ezagutzen dutenen artean %88k adierazi du irakurri edo begiratu duela Katalogoa eta %72k, berriaz, produkturen bat erosteko erabili duela. Ezagutzen dutena, batez ere, paperezko euskarria da.

Katalogoa ezagutzen dutenen %85ak adierazi du bertako produktuak interesgarriak eta kalitatezkoak direla eta Katalogoari (paperezkoan nahiz internetekoan) 7tik gorako puntuazioa eman diote, 10en gainean.

Euskarazko produktuak, batez ere, denda txiki eta ertainetan erosten dituztela diote gurasoek. Erdiak adierazi dute, gainera, sekula ez dutela horrelakorik erosi azalera handietan.

Liburu eta jokoak dira gehien erosten diren produktuak.

oparitu euskaraz!

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA 2012-2013



EGIN KLIK KLIK

www.katalogoa.org



musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika, jostailu eta jokoak, irakurri edo begiratu duela Katalogoa eta %72k, berriaz, produkturen bat erosteko erabili duela. Ezagutzen dutena, batez ere, paperezko euskarria da.

LABURRAK.-

Herritarrak ederki Donostiako Maratoian

Igandean, Donostiako DKV Maratoia izan zen eta 24 herritar izan ziren Anoetako estadiora iritsi zirenak. Herritarren artean azkarrena, Andoni Illarramendi izan zen 28. postuan, 2:39:17 denborarekin. Ez zen, ordea, hiru orduetatik jaitsi zen lasarteoriatar bakarra izan, Jose Luis Delgado, 02:43:12, Julen Ollokiegi, 02:53:34, eta Toño Perezek, 02:57:12, ere ederki egin zuten lasterka.

Gainontzeko herritarrak eta haien denborak hauek dira: Xabier Carcedo, 03:06:39; Juan Mari Marcos, 03:07:50; Aitor Otamendi, 03:08:36; Guillermo Trombotti, 03:13:54; Jose Ramon Mendizabal, 03:26:28; Iñigo Valdivia, 03:27:37; Ibon Urdanpilleta, 03:28:54; Pablo Ucerro, 03:29:38; Gorka Lasa, 3:31:58; Sonia Rodriguez, 03:33:00; Iñigo Gomez, 03:36:54; Emilio Hernandez, 03:38:57; Juan Mari Sarobe, 03:46:44; Antonio Urruzola, 03:48:26; Martin Urdangarin, 03:49:04; Peio Fadrique, 03:55:36; Javier Alonso, 04:00:45; Álvaro Sañudo, 04:10:04; Ricardo Fernández, 04:21:41 eta Aurelio Fernandez, 04:47:53.

Bestalde, Maratoiaren barruan, 10 kilometroetako proba izan zen eta bertan ere izan zen herriko ordezkariak txikia. Azkarrena, Jon Altuna izan zen 35. postuan, 35:48. Mikel Martinez, 38:43; Txomin Juaristi, 38:48; Rafael Ruiz, 43:22; Rodrigo Gil, 43:46; Jesús Eladio, 43:54; Jose Alberdi, 45:23 eta Iraitz Pikabeak, 46:33, ere Anoetako estadiotan zegoen helmugara iritsi ziren.

OHARRAK.-

Ostadarreko loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldearen gabonetako loteria elkartearen bulegoan, Geltoki 25, eta Aldatzekua tabernan salgai dago dagoeneko eta nahi duenak eskura dezake. Kirol taldearen zenbakia 65667 da.

Indoor txirindularitza ikastaroak

Lasarte-Oriako Kirol Udal Zerbitzuak, Indoor txirindularitza eskaintza zabalduko du eta bi talde berri jarriko ditu martxan.

Taldeek astearte eta ostegunetan izango dituzte saioak honako ordutegietan, bata 17:10ean eta bestea 21:10ean.

Kirol Zerbitzuak jakin arazi duenez, taldeak gutxienean erabiltzaile zenbakia osatu bezain laster jarriko dira martxan. Interesa duten guztiak kiroldegiko bulegoan izena eman beharko dute.

JUDO.-



Gorka Aristegi entrenatzailea San Andres torneoan parte hartu zuten gaztetxoetako batzuekin.

G. ARISTEGI

Judoka gazteak ederki lehen proban

Infantil, alebin eta benjaminiek domina ugari lortu zituzten

Judoko San Andres torneoaren igandean, azaroaren 25ean. Honetan LOKE taldeko 31 gaztetxo hurbildu ziren Eibarrera eta ederki lehiatu ziren. Gehienek domina eraman zuten etxera.

Nerea EIZAGIRRE

LOKEko infantil, alebin eta benjamin mailako judoek denboraldiako lehen txapelketa izan zuten lehengo igandean, San Andres torneoan. Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu digunez, ederki lehiatu ziren guztiak eta hainbat domina eskuratu zituzten gaztetxoek.

Infantil mailan, Talib Vergarak bigarren postuan amaitu zuen eta Eneko Eizagirre, Jorge Revuelta, Ibai Tamayo eta Henry Wergnerrek brontzea lortu zuten.

Alebin mailan, Ander Garrido, Jesus Curiel, Erik Bermejo, Garikoitz Mena, Alex Saleta, Manu Revuelta, Ibai Aranguren, Xabier Ibarguren, Eneko Manterola, Mikel

Eizagirre, Mikel Erkizia, Unax Pikabea, Arkaitz Santos eta Joseba Rodriguez izan ziren parte hartu zutenak eta guztiak lortu zuten domin.

Bestalde, Julen Fernandez, Nestor Gil, Xabier Morales, Lucas Morales, Erik Azkue, Aritz Peña, Gilen Aizega, Ander Agirre, Irene Manterola, Oier Guisado, Juan Muñoz, Santi Mezzena benjaminiek bere lehen txapelketa ofiziala izan zuten.

Aste honetan, judoka helduenek Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute Hernanin.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 01

Michelin, 12:30ean

Ostadar-Lazkao
Infantil txikia, kopa

Mallona, Bilbao, 10:55ean

Santuxu-Ostadar

Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Michelin, 11:00etan

Texas Lasartearra-Ostadar

I. Kadetea

Michelin, 14:30ean

Ostadar-Urola

Infantilen Ohorezko maila

Elorri, Alegi, 15:30ean

Intxurre-Ostadar I. Erregionala

Michelin, 16:00etan

Ostadar-Aurrera

Jubenilen Ohorezko maila

Michelin, 17:45ean

Ostadar-Amara Berri

I. Infantil

Igandea 02

Michelin, 10:30ean

Ostadar-Lazkao

Emakumezkoen maila

Ibarra, Aretxabaleta, 16:30ean

Aretxabaleta-Ostadar

Erregional Ohorezko maila

Berio, Donostia, 18:15ean

Santo Tomas Lizoea-Ostadar

I. Jubentia

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 30

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

19:30ean, ISU Leihoak-Izarra bitxitogia

20:20ean, Urdaneta H.K.-Buenetxea

21:20ean, Indaux-Ana eta Soi ileapaindegia

Larunbata 01

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol gunea, areto-futboleko kantxa

10:30ean, Balerdi harategi-Ilargi

11:30ean, Trumoi taberna-El Punto

12:30ean, Ori kristaldegia-Izkia taberna

13:30ean, Txindoki taberna-Albaileria Vertical

Kiroldegia, 17:45ean

Aldaz H.K.-Ibarra Nazional III. maila

Igandea 02

Alluralde kiroldegia, Andoain, 11:30ean

Euskalduna- ISU Leihoak

Gipuzkoako Liga, I. maila

PILOTA

Ostirala 30

Ernio, Bidegoian, 19:30ean

Aurrera Saiaz 2-Intza I

Eskuz banaka, jubentia

Zestoa, 19:30ean

Zestoa-Intza

Eskuz banaka, I. urteko infantila

Beko Errota, Lezo, 21:30ean

Allerru 2-Intza

Eskuz banaka, II. jubentia

Larunbata 01

Beotibar, Tolosa, 10:00etan

Aurrera Saiaz 2-Intza

Eskuz banaka, I. jubentia

Hernani, 16:30ean

Hernani-Intza

Eskuz banaka, 2. urteko infantila

SASKIBALOA

Larunbata 01

Kiroldegian, 15:30ean

Ostadar-Take Urkizu

Parte hartze liga, kadete neskek

ATLETISMOA

Larunbata 01

Antonio Elorza belodromoa, Donostia,

10:30ean

Landaberri eta Sasoea-Zumaburu

ikastetxeetako alebin eta infantil

mailako gaztetxoek pistako

eskolarteko lehiaketako proba

libreak dituzte.

Igandea 02

Zarautz, 11:30ean

Herriko hainbat atletek 34. bikote

mistien kroसान parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 01

Palma de Mallorca, 10:00etatik aurrera

Buruntzaldea IKT-ko Itzaso Tolosa

eta Haitz Mitxelena igerilariak

Estatuko Neguko txapelketan

izango dira.

Tolosa, 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko benjamin eta

alebinen Kirol Zehaztasun Ligako

I. jardunaldia izango dute.

DUATLOIA

Igandea 02

Murgia, 11:00etan

Hainbat herritarrek parte hartuko

dute Mendi duatloi txapelketako

azken proban.

ERRUGBYA

Larunbata 01

Ayete, Donostia, 11:00etan

Atletico San Sebastian-Beltzak

Ostadar Gure Etxea Kadeteak

Igandea 02

Michelin, 09:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Errugby

eskolako infantil federatuak, eskolarteko infantilak, alebin eta benjaminen entrenamendua dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 01

Atsotakar parkea, 11:00etan

Bazpi Txirindularitza eskolako

kideek alebin eta infantil mailako

haurrekin saioa egingo dute.

Igandea 02

Antonio Elorza belodromoa, Donostia,

10:00etan

Bazpi Txirindularitza eskolako eta

herriko gazteek Gipuzkoako pistako

txapelketako jardunaldia dute.

JUDO

Larunbata 01

Tolosa, goiz osoa

LOKEko Garridok eta Baldak

gerriko beltzeko azterketa dute.

Igandea 02

Hernani, 10:00etan

LOKEko judoek Gipuzkoako

txapelketan parte hartuko dute.

Hernani, 11:30ean

LOKEko infantil mailako judoek

Eskola kiroleko Topaketa dute.

Agenda

Larunbata 01, 18:00etatik aurrera



Jaialdi umoretsua eta berezia

Urritasuna duten pertsonen eguna da abenduaren 3a eta Lasarte-Oriko herritarrek hau ospa dezaten, Jalgune elkarteak "Neregatik eta nere lagunengatik" lemapean arratsalde pasa zoragarria antolatu du. Lehenik jaialdia izango da Manuel Lekuonan. Ostean, batukadarekin Okendo plazara hurbildu eta bertan ezkutaketa erraldoia izango da. Txokolate goxoa dastatu eta dantzak ere izango du bere tartea.

Diaporama

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Asteazkena 12, 21:30ean

Ostadar SKT-ko mendi saileko lagunek Atlas mendilerroa eta Marokora egindako bidaia azalduko dute. Ttakin K.E.-k antolatutako diaporama saileko saioa da.

Bestelakoak

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 30, 19:00etan

Auzoz auzoko bileren laugarren faseko azken bilera izango da erdiguneko bizilagunekin.

Andoain

Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 30, 21:30ean

Doctor Deseo taldeak "Al Amanecer... Seguir Soñando" hamahirugarren diskaren zuzeneko aurkezpena egingo du. Sarrera, 15 euro.

Usurbil

Hitzaldia

SUTEGI KULTUR-ETXEA

Ostirala 30, 19:30ean

Jon Sarasuaren hitzaldi kantaldia, "Leterekin Kantu Berbetan" izango da. Emanaldia kantaldiaren eta hitzaldiaren hibrido bat da, kantaldia mintzatua edo hitzaldi kantatua. Xabier Leteren abestietan oinarritutako saioa da. NOUA!-ren Kulturaldiaren barruko ekimena da honakoa.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 02, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Frankenweenie" marrazki biziadunetako film belgurgarria eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.



Osteguna 13, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, Jon Maia bertsolariak zuzendutako "Gazta zati bat" dokumentala eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Euskaraz

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 30, 23:00etan

"Erraiak" diskaren aurkezpena egingo du Xabier San Sebastianek. Rock&rolla eta doinu afrikarrak entzun ahalko dira emanaldian.

EL BAR DE MAU

Larunbata 01, 20:00etan

La U.R.S.S eta Dictadura taldeen kontzertua izango da. Doinu hardcore eta punk-ak entzungo dira.

SIGLO 20

Larunbata 01, 23:30ean

DJ Budin-en funk, musika beltza eta R&B doinuak gozatzeko saioa izango da, Kultur kale zirkloaren barruan.



Herritarren txokoa

Herritarren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, azararen 30an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Batxilergoko tituluak

Lasarte-Usurbil Institutuak 2010-2011 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleei jakin arazten die tituluak eskuragarri dituztela ikastetxeko idazkaritzan.

Aterpeko Loteria

Aterpea Merkatarien Elkarteak Gabonetako Loteria jarri du salgai. Loteriako txartelak elkarteak osatzen duten dendetan daude eskuragarri.

Lasartearra elkarteak loteria

Lasartearra elkarteak Gabonetako Loteria salgai du. Txartelak eskuratu nahi dituzten herritarrek elkarteak bulegora, Erribera kalea 10 atzealdean, hurbildu behar dira asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 19:00etara.

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Euskaraz bizitzeko, euskarazko komunikabideak behar ditugu

Larunbatean, abenduak 1, Euskaraz bizi nahi dugu leloa oihukatuko dugu euskaltzaleok Donostiako kaleetan. Euskaraz jarduten dugun hedabide ez publikoak batzen dituen HEKIMEN elkartearen izenean, Kontseiluak deitu duen manifestazioan parte hartzera deitu nahi zaituztegu.

Euskal Herri euskalduna nahi badugu, euskaraz bizi nahi badugu, komunikabide esparru indartsua izatea ezinbestekoa da. Euskal Herrian azken hamarkadatan gizarte hedabide sare zabala sortu da: 600 bat langile gara sektorean eta ehunka mila pertsonarengana heltzen gara. Esparru txikia da gurea baina, aldi berean, indartsua eta ezinbestekoa euskaraz bizi nahi badugu.

Administrazioa, hezkuntza eta hedabideak zutabe funtsezkoak dira hizkuntza garapenean. Baliabideei dagokionez, administrazioan eta hezkuntzan indar handia jarri da azken hamarkadatan, euskarazko hedabide publikoetan ere bai. Baina askoz gutxiago hedabide ez publikoetan.

Euskal gizarte moderno eta kohesiona-tua eratzeko, hizkuntza-komunitatea osatzeko, gizarte hedabide sare zabala behar bezala babestu behar dugu.

Euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatiboa sendoa garatzeko, elkarlanaren bidea jorratu dugu urte guzti hauetan euskarazko komunikabideek. Elkarlan hori bideratzeko, HEKIMEN elkarteak sortu berri dugu. 50 komunikabide baino gehiago batu gara, euskaraz bizi ahal izateko garrantziak garelako aldarrikatzeko.

Euskaraz bizi ahal izateko, ezagutza eta borondateaz gain, ezinbestekoak dira baliabideak. Euskarazko eremuak behar ditugu. Hedabideen kasuan, gure herrietan, euskal gizartearen, Europan, munduan... gertatzen denaz informatuko gaituzten komunikabideak behar ditugu. Teknologia berriek eta Internetek ekarri dituzten aldaketetara egokitutako komunikabideak.

Komunikabideontzat ez dira garai onak, krisi hotsak nonahi entzuten

dira. Baina ilusioz ari gara beharrean, bizi dugun egoera gaitzari elkarrekin erantzunez. Euskal gizarteak garai berriak bizi ditu, testuinguru egokia euskararen normalizazioan behar ditugun aldaketak emateko. Euskarazko komunikabideek, azken hamarkadatan bezala, gure ekarpenarekin jarraituko dugu. Guztiok euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun.

Iban Arantxabal eta Iban Arregi
HEKIMEN Euskal Hedabideen
Elkarteko Zuzendaritza
Batzordearen izenean

Ederki bizi dira (gizonezko) batzuk,
beste (emakumezko) batzuen kontura!
Zainketa duinak guztiontzat: gizon
nahiz emakumeontzat.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna**
egiteko asko

www.berdintasuna.tv

Eztipphoto

2012/13
GABONAK

ERREGE EDO OLENTZEROTARAKO
OPARITU ERRETRATO BAT!
ARGAZKI SESIOAK 65 EUROTAN



Golf Plaza 4, Atsobakar. Tlf: 943 900 565

www.eztipphoto.com